



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2022.09.21

Ordua: 18:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/07/27ko akta aho batez onartu da.

2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHAKATUA, LEHENTASUNEZKO BIRGAITZE EREMUA HIRIGUNE HISTORIKOAREKIN MUGATZEKO. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehakatu, Lehentasunezko Birgaitze Eremua hirigune historikoarekin mugatzeko hasierako onespeneren iragarkia 2022ko abuztuaren 11ko (160. zk.) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua zela, baita 2022ko abuztuaren 3ko Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren bi egunkarietan ere (Diario de Noticias eta Diario de Navarra).

Jendaurreko epean iradokizun edo alegaziorik aurkeztu ez denez Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1.b) artikuluan xedaturikoaren arabera, Arantzako Udalak behin betiko onespenera eman diezaioke sustaturiko aldaketari.

Halaber, Legegintzako Foru Dekretu bereko 79.1. artikuluan xedaturikoari jarraiki, behin betiko onetsitako aldaketaren espedientea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da publizitate eta komunikazio betebeharrak betetzeko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Udal Planeko Arau Subsidiarioen aldaketa xehakatuari behin betiko onespenera ematea, Lehenetsitako Birgaitze Eremua hirigune historikoarekin mugatzeko. Hori guztiak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1.b) artikuluan xedaturikoaren arabera.

2.- Behin betiko onetsitako espedientearen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79.1. artikuluan xedaturikoa betetz.

3.- Behin betiko onetsitako aldaketa Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Departamentuko Lurralde Plangintza eta Partaidetza Atalera bidaltzea.

3. 2022. URTEAN BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ONESPENA.

Idazkariak 2022. urtean Bortziritako Igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak azaldu ditu. Horri dagokionez, aipatzeko da dirulaguntza deialdia irailaren 7ko 97/2022 Alkate Ebazpen bidez onetsia izan zela.

Era berean, dirulaguntza deialdia egiteko Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3. artikuluan xedaturikoa jarraiki egin dela azaldu du. Horrela bada, 17.3.b) artikuluan xedaturikoaren arabera, BDNS bidetik deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela adierazi du. Argitalpen data irailaren 29a izatea espero da eta egun horretatik zenbatzen hasita Arantzan erroldatutakoek 10 egun balioduneko epea izanen dute deialdiaren 5. oinarrian zehazturiko dokumentazioa aurkezteko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- 2022. urtean Bortziritako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdia onestea.

2.- Deialdiaren nondik norakoak azaltzea Arantzako Udalak hala deritzon hedabideetan bizilagun orok jakin ditzan.

4. PABLO GONZALEZ ASKATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESPENA.

Arantzako Udalak Pablo Gonzalez euskal kazetariaren egoera guztiz antidemokratikoa eta bidegabekoa dela salatu nahi du.

Udalaren ustetan, guztiz onartezina da estatu batek hain modu arbitrarioan eta inolako frogarik gabe kazetari bat preso edukitzea. Prentsa askatasunaren eta demokraziaren aurkako eraso bat da.

Pablo Gonzalez duela zazpi hilabete atxilotua izan zenetik espetxean inkomunikaturik dago familiaren bisitarik jaso ahal izan gabe ezta bere konfiantzako abokatuarena.

Gauzak horrela, Arantzako Udalaren osoko bilkurak honako hau adierazi du:

1.- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Pablo Gonzalez kazetariak jasaten ari den egoera salatzea, haren askatasuna lortzeko beharrezkoak diren kudeaketak abian jarritz.

2.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Kabineteari jakinaraztea, jakinaren gainen agon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

5. LARABURUKO BORDAKO BIDEAREN INGURUKO OBRA FINANTZATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA.

Idazkariak Laraburuko Bordako hitzarmenaren nondik norakoak azaldu ditu. Zentzu horretan, aipatzekoa da hitzarmenaren aurrekarietan adierazitakoaren arabera, ikusirik Laraburuko Bordako bidea moldatzeko dagoen premia eta, kontuan hartuta partikularrak bere etxean obrak eginen dituela eta obra horiek egiteko bidea konpontzeko erabili ahal izanen den makinaria erabiliko duela, udalak eta partikularrak komenigarritzat jotzen dutela, egoera aprobeztatuz, Laraburuko Borda bidea konpontzea, bi aldeen interesekoa baita.

Horri dagokionez, adierazitako hitzarmena egiteko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1etko 40/2015 Legearen 47 eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa jarraiki egin dela jakitera eman du idazkariak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KOPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- Laraburuko Bordako bidearen inguruko obra finantzatzeko hitzarmena onestea.

2.- Akordio hau Laraburuko Bordako jabeari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

6. LORBIDO, ARBODEGI ETA EKAITZA ERREKA GAINEN PRESA TXIKIAK ERAISTEAGATIK, EKAITZA ERREKAKO ARRAN-ESKALAK ERAISTEAGATIK ETA FELIPENBORDA ERREKAREN KANALEKO HARTUNEA ERAISTEAGATIK KEXUA KANTAUROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOARI HELARAZTEA.

Arantzako Udalak Lorbido, Arbodegi eta Ekaitza presa txikiak eraisteagatik, Ekaitza erreka arrain-eskalak eraisteagatik eta Felipenborda erreka kanaleko hartunea eraisteagatik Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak sustaturiko espedientearen inguruan hemen adierazitako kexua bideratu nahi dio.

Horri dagokionez, Arantzako Udalak KEJEP konpromisoan hartutako ildo nagusia energia berriztagarriak sustatzea zela ikusirik, bitarteko berriztagarri bidez energia sortzeko planta bat ixtea, orain arte Transportes Maitxene, S.L. enpresak egiten zuen bezala, guztiz onartezina dela deritzo; eta are gehiago Arantzako herria honen jakitun izan gabe.

Era berean, aipatu beharra da Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren argudio nagusia dela eraispen hori sustatzen duela bertako arrai eta gainontzeko faunaren ongizate bermatzeko. Horrela bada, erratekoa da lehen adierazitako enpresak dagoeneko konpromisua hartua zuela presan eskalak eta kanalak egiteko, baita hartuneak erregulatzeko eta bidezkoak ziren gainontzeko moldaketak egiteko arrai zein faunaren ongizatea bermatzeko. Hala ere, eraispen espedientearekin aitzinera jarraitu du Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta, Arantzako Udalaren ustetan, eraispena aitzinera eramateak inpaktu okerragoa izan dezake ingurumenaren zentral hidroelektrikoaren jarduerarekin modu egokian jarraitzea baino.

Gauzak horrela, Arantzako Udalaren osoko bilkurak honako hau adierazi du:

1.- Kexu hau Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helaraztea, jakinaren gainena egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

7. URRIAREN 12KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESPENA.

Arantzako Udalak gogorarazi nahi du 1492ko urriaren 12ko datan hasi zela Espainiaren kolonizazio prozesua Ameriketara. Kristautasun eta zibilizazioaren izenean milaka indigena erail zituzten bertako lurretaz eta aberastasunetaz jabetu ahal izateko.

Laster, urriaren 12an, hispanitate eta Guardia Zibila eguna ospatuko da. Arantzako Udalaren ustetan ez da harro egoteko eguna, ez Euskal Herria ezta Espainiarentzat ere, irakurketa kritiko bat egiteko eguna izan beharko litzateke, politika inperialistak bertan behera uzteko abiapuntu izanik.

Gauzak horrela, Arantzako Udalaren osoko bilkurak honako hau adierazi du:

1.- Urraren 12an Arantzako Herriko Etxea irekita egonen dela.

2.- Akordio honen iragarkia Arantzako Udalaren iragarki taulan paratzea, bisitari zein bizilagun oro jakinaren gainean egon dadin.

8. ALKATEAREN EBAZPENAK.


86/2022 eta 113/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK.


Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:30 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

